



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
Javier Bereau Miquelarena
Maria Izaskun Altxu Ariztegi

2017ko urriaren 25ean, 08:15ak direnean, Ohizkanpo Premiazko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea.

Lehenik eta behin, bilkuraren izaera eta Gai Zerrenda baitetsi dira aho batez (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 78.1 artikulua).

Jarraian, Gai Zerrendako gai bakarra aztertu da:

1. HERRIKO OSTATUA.

Herriko Ostatuko taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendua emateko lehiaketa irekirako deia egin zen eta ez da inor aurkeztu. Ondorioz, lehiaketa berria egiteko baldintzen agiria aztertu da eta aho batez erabakitzen da:

1. Lehiaketa irekirako deia egitea Iturengo *Herriko Ostatuko* taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendua emateko.

2. Baldintza plegua onestea. Hasierako prezioa, hilabeteko 100 eurotan finkatu da eta errentamenduaren iraupena, 5 urtetan.

Eta bertzerik ezean, 08:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.